



## My Locker: Ikasleentzako eduki digitalen aplikazioa

Familia maiteak:

Gure metodologiaren material fisikoaren osagarri gisa, **My Locker** aplikazio mugikorra ere izango duzue eskura, kurtsoko istorio bakoitzarekin lotutako ikus-entzunezko edukiekin eta joko interaktibo osagarriekin.

Honako urrats hauek eman beharko dituzue zuen gailu elektronikotik (mugikorretik edo tabletatik) aplikaziora sartu ahal izateko:

1. **urratsa:** Aplikazio mugikorraren dendara joan. (Play Store Android gailuetarako / App Store iOS gailuetarako)




2. **urratsa:** **My Locker** aplikazioa deskargatu.



My Locker

3. **urratsa:** Aplikazioa irekitzean, beheko pantaila ikusiko duzue. Zuen erabiltzaile-izena eta pasahitza sartu beharko dituzue; honako hauek, alegia:



Ikaslearen nortasun-datuak:

Erabiltzailea: [izena]. [lehen abizena] [autonumerikoa]. Adibidez: {jose.rodríguez1}

Pasahitza: [xxxxx]

Familiaren nortasun-datuak:

Erabiltzailea:

Pasahitza:

Jarraian, "Continue" klikatu beharko duzue, eta "Lege-baldintzak" atala onartu.






Aplikazioak bi profil mota desberdin eskaintzen ditu: gurasoak eta ikasleak. Erabiltzaileak eta pasahitzak desberdinak dira erabiltzaile-profil bakoitzarentzat, egokiena iruditzen zaizuenarekin has dezazuen saioa.

Saioa hasi duen erabiltzailea ikaslea bada, edukiak aukeratzeko menura bideratuko da zuzenean; aldiz, saioa gurasoen profilarekin hasiz gero, lehenik eta behin zuen seme edo alabaren locker-a hautatu beharko duzue (edo horietako bat, seme edo alaba bat baino gehiago edukiz gero), eduki-menuaren pantailara jo ahal izateko.


**4. urratsa:** Zuen seme edo alabaren locker-a aukeratu. Gainera, nahi duzuen argazkiarekin pertsonalizatu ahalko duzue.



**5. urratsa:** Zuen seme edo alabaren profila hautatu ondoren, zuen seme edo alabaren kurtsoaren arabera diseinatutako eduki-menuaren pantailan sartuko zarete.

Babies ikastaroen kasuan, menuan Audioak eta Bideoak daude; Kids ikastaroetan, ordea, Games izango dituzue.





### Audioak

Atal honetan, kurtsoko audio-pistak eskuratu ahal izango dituzue, oso modu errazean. Bideoak bezala, audioak ere deskargatu eta offline entzun ahalko dituzue. Gogorarazi nahi dizuegu oso garrantzitsua dela lantzen ari garen istorioari dagokion audio-pista egunero entzutea, hori oinarritzko alderdi bat baita Kids&Us metodologian. Aplikazio hau audioak eskuratzea errazten duen tresna bat da, zuen seme edo alabak nahi duen maiztasunarekin entzun ditzan.



← Audioak

### Bideoak


Atal honetan, zuen seme edo alabek haien adinari egokitutako marrazki bizidunen atalak ikusi ahalko dituzte. Gainera, deskargatu egin daitezke, internetera konektatuta egon beharrik gabe entzun ahal izateko.

Marrazki bizidunen kapituluek hiru adin-taldeetarako egokiak diren jolas interaktiboak ere izango dituzte, aplikazioaren bideoen atalean.






1. adin-tartea  
Mousy-Emma  
Betty Sheep



2. adin-tartea  
Oliver-Marcia  
Gina Ginger & Charlie Chives




3. adin-tartea  
Pam&Paul eta  
Ben&Brenda:  
SuperKids



Animazio-kapitulua ikusi ondoren, zuen seme-alabek ingelesaz disfrutatzen jarraitzeko aukera izango dute. Nahikoa izango da  informazioarekin klik egitea, beren adinaren arabera pedagogikoki garatutako eduki digital interaktiboak dituen pantaila bat irekitzeko.

#### Jolasak (Sam - Ben&Brenda)

Atal honetan, pertsonaia eta istorio bakoitzerako espezifiki diseinaturako jolas interaktiboak topatuko dituzue, klasean landutako hiztegia eta egiturak etxean praktikatzen jarraitu ahal izateko. Zuen seme edo alabak zortzi jarduera multzo izango ditu eskura; istorio bakoitzeko, bi.. Kurtsoak aurrera egin ahala joango dira azaltzen jarduerak horiek. Multzo bakoitzak hainbat atal dituela ikusiko duzue. Atal horiek beheranzko ordenan osatu behar dira. Aurrena, Family atala osatu behar da; ondoren, Moods, eta, azkenik, Colours.



\*Eduki berri bat eskuragarri dagoen bakoitzean, jakinarazpen bat jasoko duzue, "NEW" mezuarekin, aplikazioaren eduki pedagogikoa eguneratu egin dugula jakin dezazuen.





Edukiaren iraupena

**My Locker** aplikazioaren berezitasun nagusia bere edukia da, kurtso bakoitzari pedagogikoki egokituta baitago; izan ere, urte akademikoari lotutako iraututako data du. Hau da, kurtsoak irauten duen bitartean, gaituta egongo da aplikazioa, baina, kurtsoa amaitzean, iraungi egingo da, eta, ondorioz, itxi egingo da zuen seme edo alabak egindako kurtsoaren pertsonaiaren sarbidea, eta hurrengoaren edukia gaituko da.

Aplikazioari ahalik eta etekin handiena aterako diozuela espero dugu Kids&Us-en, eta klasean landutako egiturak indartzen jarraitzeko tresna erabilgarria izango zaizuela. Gogoan izan zuen papera funtsezkoa dela zuen seme edo alabak ingelesa ikasteko abenturan aurrera egiten jarraituko duela bermatzeko.

*Happy learning!*

